

Artikulu honetan autoreak, hainbat tipologi ezberdinetako Euskal Herriko zenbait herritan egindako ikerketa abiapuntutzat hartuz eta hor-tik ateratako datuen ondorioz, gazte euskaldunen egungo hizkera hobekiago ulertzeko argibideak ematen dizkigu. Hau ikerketa egungo gazteek erabiltzen duten euskara maila kezkarria aztertzea du abiaburua. Laburbilduz, esan daiteke gazteen hizkeran gaztele-raren presentzia erabatekoa dela; «euskañol» ize-nez ezagutzen dugun hizkera mota oso errotua dagoela, hain zuzen. Bestalde, eremu soziolin-guistikoak gazteen hizke-ra asko baldintzatu behar lukeenaren ustea ustela da. Herri euskaldunetan eta erdaldunetan bizi di-ren gazteen arteko euskararen kutsadura eta gaixotasun maila ez da hain ezberdina. Erabilpen funtzionala da autorearen esanetan guzti honen-tzako sendagairik eraginkorrena

GAZTE EUSKALDUNEN LAGUN ARTEKO HIZKERA HEMEN ETA ORAIN ZERTAN DEN ULERTZEKO ZENBAIT ARGIBIDE

Imanol Esnaola

UEUko soziolinguistika saileko partaide

Haur, nerabe eta gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilpenerako motibazioa lantzearen hamaika ahalegin egin da azken urteotan. Euskarak gero iraun dezan hazia orain ereiteari ekin diogu eta horren itzalean sortu zen garai batean euskarazko hezkuntza eta berrikiago euskarazko aisialdi iharduerak. Hauen ondoan gazteenei zuzenduriko kultur eskaintza zabala eratu da eta euskarazko kultur ekoizpenak bere lan esparrua asko zabaldu du azken urteotan, gure ondoan ditugun kultura frantses eta espainolaren ondoan ahul baldin bada ere.

Ahalegin handi horren ondoan ordea, kezkak ere hasieratik ditugu, besteak beste, haur eta gazteek euskaraz ikasi bai baino erdaraz mintzatzea nahiago dutela sarritan entzun izan dugu, edo euskara traketsa darabilte-la, zenbaitek «euskañola» deitzen dutena.

Kezkak bere horretan ezer gutxi balio du ez baldin bada jakinminaren akuilu, ez baldin badu adimena zirikatzen eta begirada zorrozten, ez baldin badu gure urratsek hartu beharreko norabidearen iparra markatzen.

Orain solasgaia abiatzeko aitzakia jarri digun ikerketa, horixe da, kezka horiek markaturiko ortzimugaren bidean emandako urrats bat. Gure as-

moa ez da gazte euskaldunen lagun arteko hizkeraz esan daitekeen guztia esatea, aski zaigu egungo errealitatearen zenbait zertzelada argi ematea.

Izan ere, gazteen euskaraz asko dira kezkatu ageri direnak, asko dira zerbait egin nahian edo egiten ari direnak, beldur gara ordea, oraindik informazio garrantzitsu askoren beharrean ez ote garen. Informazio horren zain egoterik ez dagoenez, horren bila abiatzeko ordua bazelakoan ekin genion orain azaltzera goazen ikerketari.

Izan ere, aski al zaigu ezagutza, motibazioa, jarrera eta erabilpenaren inguruko informazioa gazte hizkeraren izaria ulertzeko? Askari al dira eragile horiek gazte batek «idiarena jo» eta «paja bat egin» (gaztekeraz «masturbatu») esateko erabiltzen den esapidea) esapideen aurrean egindako hau-tua azaltzeko?

GAZTEEN HIZKERAZ ETA HIZKUNTZA (KULTUR) UKIPENAZ ZENBAIT KONTU

Hizkuntzan aldakortasuna berezko ezaugarria da. Saussurek ederki adierazi bezala hizkuntza ardatz bikoitzean aldatzen da, diakronian eta sinkronian. Beraz, ez dago betikoa denik hizkuntzan. Desberdintzeak, egoeraren behar komunikatiboetara egokitzeak ematen dio indarra hizkuntzari. Eragile bat zein beste bitarteko dela aldatu beharra dugu hiztunok. Ala berdin hitz egiten zaie adiskide minari eta bulegari ezezagunari? Berdin hitz egiten al dugu heriotzaz eta aurreko batean gertatu zitzaigun pasadizo barrengarriaz? Berdin hasarretzen garenean edo norbaiten adiskide egin nahi dugunean? Berdin lankide batekin eta ume batekin berriketan has-tean...? Ez, noski.

Beraz, desberdintasunak adierazteko gai izan behar dugu hiztunok eta «desberdingintza»¹ behar beharrezkoa zaigu errealitate aberats bezain korapilotsuari behar bezala erantzuteko.

Desberdintasunak markatu behar hori psikolinguistikak «dibergentzia» deitzen du. Dibergentzia eta konbergentzia terminoek hiztunok egoera komunikatiboen aurrean izan ditzakegun joerak biltzen dituzte. Solaskidearen aurrean berarekin bat egin edo bereizteko bidea har dezakegu eta hori ez da jarrera mailako kontua soilik, hizkuntza ekoizpenean mamiturik ikusten da. Euskaldun batek euskara erdizka eta trakets dakien baten aurrean «izparringi»ren aldeko hautua egiten badu «egunkari», «aldizkari» edo «periodiku»ren kaltetan jarrera nabarmen dibergentea du. Eta jarrera horren balorazio moraletan sartu gabe, hizkuntza jardunean bizi-bizi ageri da.

Gazteriak dibergentziarako joera nabarmena du. Eta erabateko azalpena ematea erraza ez bada ere bilakaera historikoa aztertuz erantzun nahikoa argia topatuko dugu. Izan ere, gaurkoa historian inoiz izan den gaztari-rik luzeena dugu. Heldutasunaren ardurari aurre egin beharra inoiz baino gehiago atzeratu da eta gaur egun ez da batere normala hogeita bost

1) Jon Sarasuak Euskaldunen egunkariaren «seiko urrea» atalean bataiatu-riko terminoa.

2) Ikus zer dioen Chambersek honi buruz: Chambers, J. K. (1995) *Sociolinguistic Theory*. Londres, Basil Blackwell. 158, 159, 171, 172 orrialdeetan.

3) Erriondo, L., Isasi, X. eta Rodriguez, F. (1993): *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna*. Bilbo UEU. Ikerketa honetan frogaturik gelditu da euskarak bizi duen gutxiagotze egoera honetan gaur egungo bidetik hizkuntz ordezkapen prozesua oso aurreraturik dagoela. Ikerketa Urola bailarako eredu euskaldunetan ari ziren ikasleekin egin zen.

«Gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilpenerako motibazioa lantzearen hamaika ahalegin egin da azken urteotan. Ahalegin handi horren ondoan ordea, kezkak ere hasieratik ditugu, gazteek euskaraz ikasi bai baino erdaraz mintzatzea nahiago dutela sarritan entzun izan dugu, edo euskara traketsa darabiltela, zenbaitek "euskañola" deitzen dutena. Kezkak bere horretan ezer gutxi balio du ez baldin bada jakinminaren akuilu. Informazio horren bila abiatzeko ordua bazelakoan ekin genion orain azaltzera goazen ikerketari»

urtetik beherako gazteak euren kabuz bizitzen topatzea, esaterako. Ardurari ihesi eta gaztetasun eternoaren jainkotzea egin duen gizarte honek inoiz izan den gaztarorik luzeena du.

Gurasoen erabateko babesa amaitu eta gaztea bere kabuz errealitatean murgiltzen denetik helduen munduan sartzeko helduen formak hartzen hasten den arte hamarren bat urteko tartea dago (13 urtetatik 21 urte egin arte). Aro horretan, mendebaldeko gizarte honetan gazteari esperimentazio eta aldaketa aro gogorra hasten zaio, ikastetxe aldaketarekin ordura arteko inguru hurbilaren segurantzia amaitzen zaio, lagun berriak, esperientzia berriak, sexua, aisialdia... zer den erabaki beharra sortzen zaio. Eta zer den jakiteko lehen pausoa zer ez den ezagutzea da eta ondorioz honengandik artez edo molde bereizten duenaren bila ibiltzea: ez da haurra, ez da heldua, ez du helduen menpe bizi nahi, ez du helduak bezalakoa izan nahi... eta hortik jarrera, balore, itxura, gustu eta diskurtso mailan aldaketak lantzearena: «desberdingintza», jarrera dibergentea. Hor egon daiteke gurean bizi dugun egoera azaltzeko bidea, edo bideetariko bat².

Gureaz ari garelarik, ordea, ezin dugu ahanzi, mundu mailako bi kultur potentzien ondoan, edo mende dagoela eta horren eraginak dagoeneko asaldagarriak dira³. Euskara noranahi eraman nahi hori bi kultur potentzia handiren hizkuntzen kaltetan izan behar duela, eta hori ez da txantxa.

Ukipen egoerak, besteak beste, eredu indartsuen eraginpean egotea esan nahi du, edo bestela esanda, norberaren garapenean eragiten duten elementuen baitan egotea. Gai honen inguruan egindako ikerketen argitan jakin badakigu honelakoetan gutxiagotutako kultura-hizkuntzek oso zaila izaten dutela eragin honi ihes egitea. Motibazio, ezagutza, erabilpen eta jarrera mailan eragiten dute. Eta ez horretan bakarrik, ordea, baita hizkuntza ekoizpen gordinean ere. Alegia, arestian jarri dugun adibidera itzuliaz, gazte batek «idiarena jo» eta «paja bat egin»en arteko hautua egiten badu, beharbada dibergentziagatik, gurasoen moldearengandik bereiztearren ez du «idiarena jo» hautatuko, ukazio horren aurrean, ordea, ukipen egoeran badirudi ezinbestekoa dela erdarazko esapidearen aldeko hautua egitea. Atzerriko ekarpenari aurre egitearen kontzientzia gurasoengandik bereiztearena baino indartsuago balitz ordea, kontrakoa gertatuko zatekeen. Edonola ere, argi dago ukipen egoerak ordezkatzeko prozesua indarrean jartzen duela eta ordezkatzeko hori apurka-apurka eta hizkuntzaren esparru guztietan gertatzen dela, baita morfosintaktikoetan ere. Horien berri ere izan behar dugu, bada, behar bezala ezagutu eta euskararen alde eragiteko.

EUSKARAREN NORMALKUNTZA BIDEAZ ZENBAIT KONTU

Orain arte deskribatu dugun egoerak ez dio euskararen errealitateari soilik erantzuten. Honen ondoan, bada, euskarak azken hogeita hamar urte haue-

tan bizi izan duen prozesua jarri behar dugu.

Euskararen historia sozialaren ezaugarri nagusietako bat diglosian bizitu izanarena dago. Euskara historikoki gizarte jarduera jasoenetatik at gelditu izan da eta beste hizkuntzek egin dute lan hori administrazioa, zuzentza, zientzia... alorretan. Euskaldunen artean, ordea, ez dugu berria egoera hori gainditzeko nahia ez eta euskara batu baten beharraren kontzientzia. Azken mende honetan, eta euskara batuaren oinarriak ezarri zituen Arantzazuko biltzarraz geroztik, batasunaren aldeko ahalegin itzela egin du hainbat euskaltzalek, hain funtsezkoa zitzaion pausu horren kontrako indarrei aurre egiteko. Eta bistan da erronkaren neurriko erantzuna eman zela postura irabazi baitzen. Horren ondoan, ordea, jakin badakigu zenbait sakrifizio egin behar izan zela eta gaur egun sakrifizio horien ondorioak azaleratzen ari zaizkigu. Batasunaren beharrak batasuna jainkotzea ekarri zuen, batasuna euskaren gaitz ororen sendagai bakar bihurtu zuen hainbatek eta ondorioz, hortik kanpo zegoen oro baztertzera behartu —euskalkiak, lagun arteko eta etxeko hizkera...—. Eta gaur egun, «inoiz baino euskaldun gehiago» dagoen garaian euskaraz txisteak kontatu edo haserrealdiak adierazteko inoiz baino hiztun gutxiago dagoela ikusten dugu. Bestela esanda, erdararen laguntzarik gabe euskaraz hizkuntza funtzio arruntenak betetzeko gai diren hiztunak inoiz baino gutxiago dira.

Aldi berean, ordea, gizartea aldatu zaigu, euskal gizartea nagusiki base-ri giroko gizartea izatetik giro urbanoko gizartea izatera pasa da. Jada ez du zentzu handirik, «idiak» edo «antzar ferraketak» aipatzeak. Ez dute lehen zuten adierazkortasuna. Orain hiri giroaren muinean gertatutako esperientziak behar ditugu horiekin sentitzen baikara lotuen.

Honek ez du esan nahi euskal ahozko altxorra indarririk gabe gelditu denik, ez eta bazterrean utzi behar denik ere. Besterik gabe, bazterrean utzi dugula esan nahi dugu. Eta etorkizunean, baldin eta erdaren guztiz menpeko izan nahi ez badugu berriro indarrean jarri beharko dugula, zirugia ariketa zailik egin gabe, eskura ditugun tresnez baliatuz eta dibergentziari, duen garrantziagatik, behar duen lekua utziaz, hizkuntzak aurrera egin dezan.

Gizartearen aldaketaren ondoan, berriz, belaunaldi berri bat jaio da, baserria ezagutu ez duena eta aurreko belaunaldiak, batasunean jarritako gehiegizko fedeagatik, hauengandik hauek aurrekoengandik trasmisioz jaso zuten ahozko altxorra jaso ez duena. Esku artean ahozko tresna berriegi eta moldatu gabe batekin, euskara estandarra, errealitate komunikatibo osoari aurre egin behar izan diona.

Belaunaldi berri honen ondoan, euskara hutsetik hasita ikasi duten belaunaldi berriak daude, hauetariko asko etorkinen seme-alabak edo euskara galduriko sendietako kide gazteak. Hauek ere belaunaldi eta kultur eten hori sakonago egin dute ezinbestean.

Beraz, kultur etenaren ondoan, belaunaldi etena gertatu da, eta horrek

4) Azurmendi, M.J. (1991): «Algunos aspectos socio-culturales y socio-lingüísticos del léxico disponible de la población escolar bilingüe euskara-español». In Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo». Gehigarriak, XIV.

Azurmendi, M.J. (1990): «Análisis cuantitativo de la “distancia interlingüística” de la “corrección lingüística” en el uso actual del euskara». In Symbolae, Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae, separata.

Erriondo, L., Isasi, X. eta Rodriguez, F. (1993): *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna*. Bilbo U.E.U.

«Desberdintasunak adierazteko gai izan behar dugu hiztunok. Desberdintasunak markatu behar hori psikolinguistikak "dibergentzia" deitzen du. Gaztediak dibergentziarako joera nabarmena du. Gazte batek "idiarena jo" eta "paja bat egin"en arteko hautua egiten badu, beharbada dibergentziagatik, gurasoen moldearengandik bereiztearren ez du "idiarena jo" hautatuko. Atzerriko ekarpenari aurre egitearen kontzientzia gurasoengandik bereiztearena baino indartsuago balitz ordea, kontrakoa gertatuko zitekeen»

guztiak badu bere eragina gazteek lagun artean darabilten euskaran.

AZTERKETA

HELBURUAK

Haur, nerabe eta gazteen inguruan egin izan diren ikerketek⁴ lexikoa aztertu izan dute. Alegia, lekukoek idatziz emaniko hitz zerrendak izan dituzte aztergai. Azterketa hauek, bestalde, eskolarekin oso estu loturik egon izan dira, alde honetatik oso talde homogeneoak izan direlarik. Gurean, ordea, bestelako ikuspegia hautatu dugu. Izan ere, interes berezia genuen, batetik, hiztun helduagoak behatzeko; bestetik, lagun arteko diskurtso naturalean talde honen diskurtsoari «gazte» izaera ematen dioten elementu linguistikoak aztertzea eta ez lexikoa soilik. Alegia, eta galdera eginez, gazte euskaldunak, lagunartean euskaraz ari direnean zer nolako diskurtsoa darabilte? Zerk ematen dio «gazte» kutsua? Kutsu horren ezaugarriak zein dira, zenbatekoa da erdararen ekarpena? Eta euskararena? Igaritzen ote da euskarazko eskolatzea? Nabaritzen ote da honen eraginik?

Bi hitzetan esanda, bada, gure helburua, lagunarteko gazte euskaldunen diskurtsoa aztertu eta «gazte» kutsua ematen dioten elementuen hizkuntza jatorria argitzea izango da.

PROZEDURA ETA METODOLOGIA

Horretarako zortzi eztabaida taldez (43 lagun) osaturiko lagin bat aztertu dugu. Lagin honetan lekuko guztiak 16 eta 25 urte bitartekoak dira eta sexuen arteko oreka gorde dugu nahiz eta aldagai hau ikerketa honetan ez bereziki interesatu. Laginaren gainerako ezaugarriak: ikasketak zein hizkuntzatan egin dituzten edo egiten ari diren, lagun artean, etxean edo ohiko harremanetan zein hizkuntza joera duten, edo zenbateraino jarraitzen duten euskal kultur ekoizpena ez ditugu alde aurretik finkatu, emaitzen arabera bereizi eta aztertu ditugu. Gure helburua ahalik eta talderik naturalenak lortzea zen bere baitako heterogeneotasun guztia onartuz. Ezaugarri soziolinguistikoen hautapen bakarra Arrasateren kasuan egin dugu. Arrasaten bi talde grabatu genituen, oinarritzko ikasketak egin ostean lanean edo lanbide heziketa egiten ari zirenak batetik eta unibertsitate ikasketak egiten edo egiteko prestatzen ari zirenak bestetik, ikasketak mailan diferentziarik nabari zen ikusteko.

Horren ondoan zenbait gune soziolinguistiko bereizi genituen gune desberdinen artean alderik bazen ikusteko. Horretarako euskararen ezagutza eta ekonomi jarduera hartu genituen aintzat eta eremu industrial eta ruralak bereizi bakoitzaren baitan euskarak presentzia sozial handia (ezagutza, prestigioa, erabilpena...) duten eta ez dutenen artean herri bat hautatuz. Horien ondoan, bestalde, euskaldunak isolaturik bizi ziren eremuak hartu ditugu. Alegia, euskaldun izan arren euskaldun oso gutxi bizi diren eremuetako euskaldunek zer nolako ezaugarriak dituzten ikusteko.

Grabaketak honako herrietan egin ditugu: Arrasate, Dima, Segura, Galdakao, Altsasu, Portugalete, Lizarra. Herrien artean bi hautaketa berezi

egin ditugu. Batetik nekazal giroko herri euskaldunen arteko aldeak ikusteko Dima eta Seguran egin ditugu grabaketak eta bestetik euskaldunak isolaturik bizi diren eremuetako errealitatea alderatzeko Portugalete eta Lizarra hautatu ditugu.

Taldeen hautapena ez dugu guk egin hautatu dugun herriko kontaktuak baizik, guk ez genituen lekukoak ezagutzen grabatzera joan aurretik.

Dokumentazioa eskuratzeko prozedura berriz eztabaida taldeak antolatzearena izan da. Dena den, hiztunen jarrera ahalik eta zintzoena izan zedin ez diegu esan grabaketaren benetako helburua zein zen eta horretarako aitzakia batez baliatu gara. Alegia, ikerketa soziologiko bat egiten ari ginela esan diegu, eta beraien iritziak entzun nahi genituela.

Eztabaida abiatu eta bideratzeko zein ahalik eta lexikorik homogeenoa eskuratzeko gai beraren inguruko hiru prentsa artikulua eman dizkiegu. Prentsa artikulua hauek guk idatziak ziren eta eztabaida piztu eta adostasuna ekiditearren propio korapilatu genituen.

Talde bakoitzarekin ordu bete inguruko grabaketa egin genuen. Grabaketa egiteko orduan guk ez genuen parte hartzen eztabaida agortzean galderearen bat egiteko ez baldin bazen. Eztabaida, kasu guztietan euren artekoa izan da eta ez gu eta haien artekoa.

Grabaketa bakoitzaren lehen hamar minutuak kendu eta ondorengo ordu erdia transkribatu genuen. Transkripzioa hasiera batean literala izan zen, eta hortik, ondoren maiztasun hiztegia eta prestasun hiztegia eskuratzeko lematizazio egin genuen, hiztun bakoitzaren jarduna testu bakar batean bildu ondoren. Honela, bagenekien hasiera-hasieratik zer zen lekuko bakoitzak esandakoa.

Prestasun hiztegia eta lexikoaren maiztasunak neurtzeko SPD.T programa erabili genuen. Gainerako ataletakoa egiteko, berriz, zuzeneko zenbaketa guk geuk egin genuen.

Aztergaia, berriz, lexikoa, formulak, operatzaile pragmatikoak eta perpaus hibridoak izan dira.

Lexikoan izenak eta aditz nagusiak aztertu ditugu, alde batera utzi ditugu aditz laguntzaileak. Gainerako formak ere azter genitzakeen, hau, ordea, amaigabea zatekeen eta horregatik egin dugu bi hauen aldeko hautua. Beharbada interesgarriago gerta zitekeen ikustea zer gertatzen den izen-lagunekin izenekin baino. Guk, berriz, corpus zabal bat nahiago izan dugu adjektiboena murriztegia zelakoan.

Formula diogunean, hizkuntzan adiera finkoa duen egitura sintaktikoa esan nahi dugu, hitz bat baino gehiagoz osatua eta talde mailan adiera konpatitua duena. Formula izendapenaren azpian esaera zaharrak, esapi-deak, perpaus eginak, aipuak... sartzen dira. Horretarako The Encyclopedia of Language and Linguistics-ek ematen dion izen eta adieraz baliatu gara⁵.

5) Asher R.E. (1994): *The Encyclopedia of Language and Linguistics*. London, Pergamon Press

6) Asher R.E. (1994): *The Encyclopedia of Language and Linguistics*. London, Pergamon Press

7) Schiffrin (1987): *Discourse Markers*. Cambridge University Press. Egile honek "Discourse Markers" edo "diskurtsu markatzaile" terminoa darabil, aztertzen duen eremua, ordea, gurea baino murriztagoa da, eta horregatik egin dugu bestearen aldeko hautua.

«Gaur egun, "inoiz baino euskaldun gehiago" dagoen garaian euskaraz txisteak kontatu edo haserrealdiak adierazteko inoiz baino hiztun gutxiago dagoela ikusten dugu. Bestela esanda, erdararen laguntzarik gabe euskaraz hizkuntz funtzio arruntenak betetzeko gai diren hiztunak inoiz baino gutxiago dira»

Operatzaile pragmatikoaren terminoa ez da oso ezaguna gure artean. «Diskurtsu lubrikatzaile» edo «makulu» deitu izan dira. Guk *The Encyclopedia*⁶ ageri den terminoaren alde egin dugu Schiffriren terminoa⁷ baino zehatzagoa delakoan. Hauen azterketa egiteko, bestalde, erdarazko bi talderen grabaketak ere egin genituen. Euskarazko dokumentazioa jasotzeko erabilitako baliapide berak erabiliz, bakoitzetik ordu laurden bat aztertu genuen eta beste ordu laurden bana euskarazko bi taldeetatik. Honen helburua euskarazko taldeek darabilten corpusa eta beronen maiztasuna erdarazkoarekin alderatzea zen.

Hibridoak bi hizkuntzetako txertoak dituzten egiturei deitzen diegu, mailegatze lexikoa baino harago daude eta morfosintaxi mailako nahasteak ageri dituzte. Perpaus hauetako asko formula bihurtu ez baldin bada eta hiztunek maiz erabiltzen dituzte dauden horretan berean eta formula bihurtzeko bidean direla esan dezakegu.

EMAITZAK

Emaitzak maila orokorrean, herrika eta subjektuka antolatu ditugu. Ondoren datozenak emaitza nagusiak dira. Ikerketaren eranskinean datuak xeheago ageri dira.

EZAUGARRI OROKORRAK:

Formulak:

a) Corpusa:

Euskarazkoak: % 32,63

Maileguak: % 18,75

Kalkoak: % 48,61

Beraz, corpusean % 67,36 erdal jatorriko formulak dira

b) Maiztasuna:

Euskarazkoak: % 40,56

Maileguak: % 13,74

Kalkoak: % 45,69

Beraz, maiztasunean % 59,43 erdal jatorriko formulak dira

Hiztunen batez besteko formulen maiztasuna jatorriaren arabera bereizten baldin badugu, hemen ere antzeko emaitza ikusiko dugu, alegia, %59,42 erdal jatorriko formulak direla.

HIBRIDOAK

Perpaus hibrido ugari dago, batez beste hiztun bakoitzari 3,4 perpaus hibrido dagokio (orotara 203 perpaus). Zerrenda honetan ez ditugu sartu erdarazko formulak (mailegatu zein kalkatu) edo lexikoa duten euskarazko perpausak. Hauek ere aintzat hartuz gero kopuru askoz ere handia-

go baten aurrean egongo ginateke, noski. Hiztun batetik bestera alde handiak baldin badaude ere ia denek egiten dituzte. 11 baino ez dira perpaus hibrido bakar bat ere egin ez dutenak, hauen artean gehienak, berriz, oso diskurtso laburra eginak, beraz, hibridoak egiteko aukera bera ere askoz murriztagoa.

Operatzaile Pragmatikoak:

a) Corputa:

Euskarazko taldeak eta erdarazkoak corpusean forma kopuru berdintsua dute, 32 eta 34 hurrenez hurren. Euskaldunek erabilitako corputa aztertuz, ordea, mailegu eta kalkoak dira nagusi, orotara %69,69. Erdarazkoan, berriz, esateak alferrikakoa badirudi ere, ez dago euskaratik mailegaturiko forma bakar bat ere.

Dena den, mailegu eta kalko horien artean gehiago dira maileguak (%51,51) kalkoak baino (%18,18). Formulekin gertatzen denaren kontrakoa. Honek Maschlerren hipotesia⁸ indartzen du. Alegia, ukipen egoeratan hitzunik hizkuntza baten aldeko operatzaile pragmatikoen alde egiten dutela dioena.

b) Maiztasuna:

Maiztasunez ere kalko eta maileguak dira nagusi, kalkoak %27,85, maileguak %31,75, orotara %59,6.

Datu hauek corpusarenekin alderatuz agerian gelditzen da maiztasun aldetik maileguen indarra ez dela horren handia. Kezkagarria da, ordea, maiztasunean indartsuak ez baldin badira ere euskarazkoak maizago erabili arren, erreserban dauden besteak erdarazkoak izatea, horrek esan nahi baitu aberastasuna kasu honetan erdal corpusean dagoela.

Lexikoa:

Puntu honetan ez dugu corputa neurtu, bai ordea maiztasuna. Azterketa horretan ageri denez, eta batez bestekoa eginda, maileguak %14,06 dira (%8,19 izenetan eta %14,78 aditzetan). Kalkoak, lexikoan antzematen oso zailak direnez, eta are gehiago honen dokumentazio zabalean, ez ditugu zenbatu. Dena den, bistan da lexiko mailan erdararekiko menpekotasuna ez dela, inondik inora gainerako eremuetan agertu zaiguna bezain indartsua.

Laburbilduz:

Egindako neurketen argitan funtzio metalinguistikoa indarrean dagoenean erdararen presentzia nagusi bihurtzen da, bai corpusean eta bai maiztasunean. Izan ere, lexiko arruntaren azterketan egoera guztiz bestelakoa da eta maiztasunean maileguak ez dira %14,06 baino. Kalkoak, zenbatu ez baldin baditugu ere, ez dira asko izango, gehienak formula eta operatzaileen zerrendan bilduta egongo baitira.

8) Maschler, Y n.d. *Metalinguaging and discourse markers in bilingual conversations* (Unpublished m.s.) R.E. Asher-en *The Encyclopedia of Language and Linguistics*-eko Pragmatic Operators sarreraren pean (3250. or.) egiten zaion aipamena da ezagutzen dugun bakarra eta horretan oinarritu gara.

«Gure helburua, lagunarteko gazte euskaldunen diskurtsoa aztertu eta "gazte" kutsua ematen dioten elementuen hizkuntz jatorria argitzea izango da. Horretarako zortzi eztabaida taldez (43 lagun) osaturiko lagin bat aztertu dugu. Lagin honetan lekuko guztiak 16 eta 25 urte bitartekoak dira eta, ahalik eta talderik naturalenak lortuz bere baitako heterogeneotasun guztia onartuz. Grabaketak honako herrietan egin ditugu: Arrasate, Dima, Segura, Galdakao, Altsasu, Portugalete, Lizarra. Aztergaia, berriz, lexikoa, formulak, operatzaile pragmatikoak eta perpaus hibridoak izan dira»

Hizkuntzaren eguneroko errealitateak euskara ihartzen du, adierazgarritasunik gabe uzten erdararen mesedetan. Eragina corpusean izan ohi da indartsuena. Maiztasunean, berriz, alde handirik ez badago ere indar gutxiago du. Horrek, batetik, euskarazko formekiko joera edozein modutan ttikia dela adierazten du, eta bestetik, erdarazko multzoa euskarazkoa baino aberatsagoa dela.

HERRIZ HERRI, EREMU SOZIOLINGUISTIKOAK

Formuletan maiztasuna soilik emango dugu, hibridoetan zein lexikoan batez bestekoa.

Lizarra

Formulak: maileguak %12,26 + kalkoak %54,71 = **orotara %66,97**

Hibridoak: **5,8 perpaus pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %12,88**

Arrasate 1

Formulak: maileguak %13,56 + kalkoak %50 = **orotara %63,56**

Hibridoak: **3,3 perpaus pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %11,28**

Arrasate 2

Formulak: maileguak %11,76 + kalkoak %29,41 = **orotara %41,17**

Hibridoak: **7 perpaus pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %22,59**

Altsasu

Formulak: maileguak %12,5 + kalkoak %45 = **orotara %57,5**

Hibridoak: **11 perpaus pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %18,48**

Dima

Formulak: maileguak %23,07 + kalkoak %46,15 = **orotara %69,22**

Hibridoak: **10,6 perpaus pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %28,53**

Galdakao

Formulak: maileguak %8,98 + kalkoak %42,7 = **orotara %51,68**

Hibridoak: **1,3 perpaus pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %11,45**

Segura

Formulak: maileguak %2,02 + kalkoak %44,45 = **orotara %46,47**

Hibridoak: **2 perpaus pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %7,24**

Portugalete

Formulak: maileguak %20,97 + %30,64 = **orotara %51,61**

Hibridoak: **1,85 perpauk pertsonako**

Lexikoa: **maileguak %11,58**

OROHAR:

Formulak:

Erdal jatorriko formulen maiztasuna %50etik gora dute ia herri guztiek. Hortik behera dabilzanek ere (Segura eta Arrasate 2) oso kopuru altuak dituzte, biak %40etik gora.

Mailegu eta kalkoen proportzioan ere ez dago erregularitasunik, emaitza kontraesankorrak daude (Dima eta Seguraren artekoak esaterako).

Ezin esan, bada, diferentziak formulen atalean oso nabarmen ageri direnik, eta are gutxiago esku artean dugunarekin diferentzia argi eta garbiak daudenik.

Hibridoak:

Batez besteko perpauk hibrido gutxien duten herriak oso tipologia desberdinekoak dira (Portugalete, Segura, Galdakao). Gehien dutenen artean ere antzeko zenbait gertatzen da. Izan ere, Altsasu eta Dima dira, bata erdaldundua eta bestea euskalduna.

Beraz, hemen ere ez dago eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak eta emaitzen araberako bereizketa argirik.

Lexikoa:

Herrien arteko batez besteko mailegatzea %15,5ekoa da. Badaude, dena den, zenbait punta. Mailegatze txikiena duena Segura da, euskaldunena, bestalde. Gehien dutenak berriz Arrasate 2, Altsasu eta Dima. Oso tipologia desberdineko herriak dira. Emaitza hau ere, bada oso kontuz hartu beharrekoa da.

Agerian gelditzen da hemen ez dagoela hasieran eremu soziolinguistikoak zehazterakoan erabilitako ezagutzaren irizpidea eta emaitzen artean kidetasunik. Honen argitan badirudi diferentziak pertsona mailan bilatu beharko ditugula.

Horretara jo aurretik eta saihetseko azterketak egiteko zenbait froga gehiago bildu genuen. Dima eta Seguraren arteko alderaketa, Arrasateko bi taldeen artekoa edo operatzaile pragmatikoak direla eta, Lizarra eta Seguraren artekoa. Ikus dezagun zein izan diren kasu bakoitzean agertu zaizkigun emaitzak.

DIMA ETA SEGURA: NEKAZAL GIROKO BI HERRI

«Gazte hauen hizkeran elementu amankomunetako bat erdararen presentzia da. Beraz, gazte hauen diskurtsoari "gazte" kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki. Hor dute harrobia, eta ondorioz, euskarak ez du erreferentzialtasunik»

«Eremu soziolinguistikoen arabera azterketa eginez ez da bereizketa argirik ikusten. Herririk euskaldunenean, Segura, besteetan baino menpekotasun maila txikiagoa agertzen da. Beraz, eremu soziolinguistikoak ez dira muga nagusia, hiztun bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa aztertu beharra dago ezer ulertu ahal izateko. Honek, besteak beste, ordezkapen prozesua bazter gutxietara hedatu dela eta gune euskaldunen impermeabilitatearen mito herritarra indarririk gabe uzten du»

EUSKALDUN

Ezaugarri bertsuko bi herri izan arren badirudi bataren emaitzak bestearenaren kontrakoak direla. Kasu honetan Dimak Segurak baino emaitza txarragoak ditu aztergune guztietan. Kidetasun bakarra kalkoen maiztasunean dago, izan ere bi puntuko alde besterik ez dago batetik bestera (%44,45 Segurak eta %46,15 Dimak)

ARRASATEKO BI TALDEAK: UNIBERTSITATERAKO IKASKETAK EGITEN ARI DIRENAK ETA LAN MUNDURAKO IKASKETAK EGITEN ARI DIRENAK.

Oro har unibertsitaterako ikasketak egiten ari direnek emaitza hobek dituzte, izan ere erdal mailegu gutxiago dute lexikoan, beraz euskarazkoa aberatsagoa eta hibrido gutxiago ere bai, eta ondorioz, zuzentasun handiagoa. Formulatan, berriz, egoera bestelakoa da. Dena den, formulen artean mailegatzea berdintsua baldin badute ere (Arrasate 1ek %13,56 eta Arrasate 2k %11,76) kalkoetan diferentzia izugarria da. Alegia, Arrasate 1eko hiztunek darabiltzaten kalkoak %50era iristen dira eta Arrasate 2koek darabiltzatenak, berriz, %29,41 dira. Diferentzia hori alde batera utzita, ordea, badirudi gure hipotesia frogatzen dela. Alegia, lagunartean ere zenbat eta euskarazko ikasketa maila altuagoa, orduan eta erdararekiko menpekotasun txikiagoa.

OPERATZAILE PRAGMATIKOAK SEGURA ETA LIZARRAN.

Forma kopurua eta maiztasun kopuruak taldez talde nahikoa orekatuak dira. Corpusari dagokionez gutxi gora-behera heren bat euskarazkoa da bi multzoetan, eta maiztasunari dagokionez, berriz, beste hainbeste. Aipatzekoa da, ordea, Lizarrako euskarazko formak Segurakoak baino maiztasun handiagoz erabiltzen dituela (Lizarrak %33,56 eta Segurak %46,46). Aldeak, dena den, eta emaitza guztiak kontuan hartuta, ez dira nabarmenak. Beraz, taldekako kopuruek kopuru orokorretan lorturiko emaitzak frogatzen dituzte, alegia, euskarazko formak gutxiengo direla diskurtso operatzaileen eremuan eta hau erdaldundutako zein herri euskaldunetako hiztunen artean gertatzen dela.

SUBJEKTUKA, EZAUGARRI SOZIOLOGIKOEN ARABERA.

Subjektuek beraiek betetako galdetegian agertzen ziren emaitzen arabera egindako azterketa da. Lau arretagune izan ditugu: **hizkuntza joera etxean eta kalean, ikasketak eta euskarazko kultur produkzioaren jarraipena.**

Ikasketak: Arrasateko bi taldeen arteko alderaketak frogatu diguna gainerako subjektuetan ere agertzen da, alegia, zenbat eta ikasketa maila ja-soagoa orduan eta erdararekiko menpekotasun txikiagoa.

Etxeko hizkuntza joera: etxean euskaraz egiten dutenek emaitza hobek dituzten arren diferentzia ez da oso handia.

Hizkuntza joera kalean: kalean euskaraz egiteko ohitura dutenek ez dutenek baino emaitza askoz hobek ematen dituzte. Datu hau, ordea, oso kontuz hartzekoa bada ere, aipagarria da Dimako lekukoak direla joera hau argien frogatzen dutenak. Izan ere, ingurune euskalduna eta euskarazko ikasketak izan arren ez dute kalean (batez ere lagun artean) euskara erabiltzeko ohiturarik eta ikerketan erdararekiko menpekotasun handiagoa salatzen dute alderdi guztietan.

Euskarazko kultur produkzioaren jarraipena: Honek egiten du diferentziarik handiena. Lagina mugatuegia dela jakinik, eta emaitzak maila berean hartuz, gure datuen arabera euskarazko kultur produkzioa jarraitzen dutenek ez dutenen aldean erdararekiko menpekotasun askoz txikiagoa dute. Dena den, datu hau bere horretan hartzea hutsala gerta daiteke. Ohar gaituzen, euskarazko kultur produkzioaren jarraipenik handiena egiten dutenen artean bi motatakoak daudela, euskaraz mintzo direnak eta ez direnak. Hauen artean, beraz, hori da diferentzia eta hor dago gakoa, ahozko erabilpenean.

ONDORIOAK

Gazte hauen hizkeran elementu amankomunetako bat erdararen presentzia da. Formula, hibrido, Operatzaile Pragmatiko edo lexikoan argi eta garbi azaltzen da. Beraz, gazte hauen diskurtsoari «gazte» kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki. Hor dute harrobia, eta ondorioz, euskarak ez du erreferentzialtasunik. Honek aurretik egindako beste ikerketa baten emaitzekin bat egiten du⁹.

Pentsatzekoa da, bidenabar, gure azterketatik hori ondorioztatu ezin bada ere, erdararekiko menpekotasunaren bidezko euskararen zapuzteak, zapuzketak berak, ez ote duen «gazte» kutsuaren esklusibitatea hartu. Helduen euskararengandik bereizi eta erdaldun gazteen diskurtsora hurbilduz autoafirmazioa eta bereizketa maila bikoitzean lortzen baitituzte. Gure datuetan honen alde edo kontra zeharka egiten duten daturik ageri bada ere, esandakoa hipotesi mailan utziko dugu, azterketa zehatzen zain.

Eremu soziolinguistikoaren araberrak azterketa eginez ez da bereizketa argirik ikusten. Herririk euskaldunenean, Segura, besteetan baino menpekotasun maila txikiagoa agertzen bada ere, hibridazioan, lexikoan edo formuletan diferentziak, formulen kasuan, ez dira hain handiak eta operatzaile pragmatikoen kasuan ia berdinak. Beraz, eremu soziolinguistikoak ez dira muga nagusia, hiztun bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa aztertu beharra dago ezer ulertu ahal izateko. Honek, besteak beste, ordezkapen prozesua bazter guztietara hedatu dela eta, gune euskaldunen inpermeabilitatearen mito herritarra indarrrik gabe uzten du.

Hiztun bakoitzak soslai berezia du. Dena den, euskararen erabilpen funtzionala egiten dutenek gainerakoek baino emaitza hobek lortzen dituzte. Erabilpen eremuen artean eta funtzionaltasunaren emaitzei begira diferentziarik handiena etxean edo kalean euskaraz aritzeko ohitura dutenek jartzen dute. Garrantzitsuak izan arren ez dirudite aurreko biak be-

9) Agirre, L., Franko, A. (1989) *Gazteak eta euskara zonalde euskaldun batean* in Jakin 54. Eztabaida taldeen bitartez egindako ikerketa kualitatiboa da. Bertan erdara jotzeko maiznik agertzen diren arrazoien artean, «Euskararen mugak: Hizkuntzen prestigioa» atalean, besteak beste, honako hau ageri da: «Euskarak ez du balio gauza guztiez hitz egiteko» eta honela arrazoitzen da: «Gazte hauei gai edo arlo berezietan euskara ez zaie espresatzeko baliagarria gertatzen eta gai batzuez euskaraz hitz egiteko ez dituzte espresioak ezagutzen». Ematen dituen adibideen artean insultatzea edo politikaz hitz egitea daude.

«Euskararen erabilpen funtzionala egiten dutenek gainerakoek baino emaitza hobek lortzen dituzte. Beraz, hizkuntzaren erabilpen funtzionala bera da hizkuntz osasunarentzat botikarik onena.»

zain eraginkorrak direnik ikasketa maila edo euskarazko kultur ekoizpenaren jarraipenak. Beraz, hizkuntzaren erabilpen funtzionala bera da hizkuntz osasunarentzat botikarik onena. Ezagutza soilarekin, erabilpen erreala, egunerokotasunari atxikia, indartu gabe, ezin zaio aurre egin arazo honi.

Honek guztiak euskararen normalkuntza bidean ortzimugan puntu zehatz bat jarri digu, gazteen lagun arteko hizkera, eta honen ondoan, euskaraz komunikatzeko errepertorioa lantzen joatearena, dibergentziari dagokion lekua aitortuz eta ordezkapen prozesuan une honetan euskara ahultzen duten eragile nagusiak euskararen alde jarriaz.

Ezer berririk esan ez badugu ere balio izan beza honek askoren ustea datu zehatzetan ikusteko eta geroan arazo honen inguruan egingo diren go-goeta eta ekarpenen bidea zertxobait argitzeko.